***HIRUGARREN.-** Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legeak onartutako Alor Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateratuaren 115.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza administratibo berezi eta preskripzio tekniko berezien pleguak gastua egin aurretik edo gastua egiterakoan onartu beharko dira, beti ere kontratua lizitatu baino lehen.*

***TERCERO.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 115.1 del Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, los pliegos de condiciones deberán ser aprobados con anterioridad a la autorización del gasto o conjuntamente con ella, y siempre antes de la licitación del contrato*

***LAUGARREN.-** Pleguak onartzea kontratazio organoari dagokio, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko Bigarren Xedapen Gehigarriko 2. atalean xedatutakoaren arabera, Xedapen bereko 1. atalari dagokionez".*

***CUARTO.-** La aprobación de los pliegos corresponderá al órgano de contratación, de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público apartado 2, puesto en relación con el apartado 1 de la misma Disposición".*

2013ko ekainaren 17ko bileran emandako Hirigintza, Obra eta Kultur Ondare Batzordearen diktamena ikusirik, bertan Udalari proposatzen zaiolarik Plegua onartzea.

Visto el Dictamen de 17 de junio de 2013 de la Comisión de Urbanismo, Obras y Patrimonio Cultural, proponiendo al Ayuntamiento Pleno la aprobación del Pliego.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko hamazazpi botorekin eta aurkakorik gabe.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por diecisiete votos a favor y ninguno en contra.

Ondorioz, **Udalbatzak** aho batez **EBATZI DU:** Zuloaga etxean eta alboko eraikinean udal liburutegia birgaitzeko obrak esleitzeko prozedura irekiko lehiaketa arautuko duen baldintza administratiboen plegua onartzea.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno** por unanimidad **ACUERDA:** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas que han de regir en el concurso mediante procedimiento abierto para adjudicar las obras de rehabilitación de la biblioteca municipal en la casa Zuloaga y edificio anexo.

**9.- BIGARREN ESKUALDAKETAKO ETXEBIZITZA PUBLIKOAK ESKURATZEKO ESKAERAGILE ERREGISTROA SORTZEKO HONDARRIBIKO UDALERAKO OINARRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA**

**9.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE BASES PARA LA CREACIÓN DE UN REGISTRO DE SOLICITANTES DE VIVIENDA PÚBLICA DE SEGUNDA TRANSMISIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA**

Bigarren eskualdaketako etxebizitza publikoak eskuratzeko eskaeragile erregistroa sortzeko Hondarribiko Udalerako oinarriak azterturik.

Examinadas las bases para la creación de un registro de solicitantes de vivienda pública de segunda transmisión del Ayuntamiento de Hondarribia.

2013ko ekainaren 17ko Hirigintza eta Kultur Ondare Batzordearen diktamena ikusirik, Udalbatzari oinarriak onartzea proposatuz, gutxienez 15 urteko erroldari buruzko baldintza aldatuz, eta bere ordez 10 urtekoa jarriz.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo y Patrimonio Cultural de 17 de junio de 2013, proponiendo al Pleno la aprobación de las bases, modificando el periodo de al menos 15 años de empadronamiento al periodo de 10 años.

Alkate jaunak sarrera eman dio gaiari, esanez babes ofizialeko etxebizitzen kasuan, jabeak etxea saldu nahi duenean, Udalaren esku jarri behar duela, eta gertatutako azken kasuetan Udalak erosi egin dituela. Honelako salerosketa bakoitza 3.000 euro dira Udalerako. Egin dena zera da, interesatuen zerrenda bat zabaldu bigarren eskualdaketako etxebizitza horietarako; eta Udalaren eginkizuna salerosketa hori egokitzea da. Zerrendak irekiak izaten dira, zerrendetan egoteko izena eman behar da, eta zerrenden indarraldia bi urtekoa da. Bi baldintza nagusi bete behar dira: Etxebizitza eskuratzeko baldintza orokorrak betetzen direla adierazi, eta horiez gain Udalak ezarritako baldintzak betetzen direla ere adierazi. Baldintza nagusia 10 urtez erroldatua egotea da, eta zerrenda bi urtetarako da; behin epe hori igarota, zerrendan egoten jarraitu nahi duenak berriz eman behar du izena. Baldintza ekonomikoak eta Udalak

El Sr. Alcalde introduce el tema diciendo que como es sabido, en los casos de vivienda de protección oficial, cuando el propietario quiere vender su casa, debe ponerla a disposición del Ayuntamiento, y en los últimos casos el Ayuntamiento las ha adquirido. Cada compraventa de este tipo supone 3.000 euros para el Ayuntamiento. Lo que se ha hecho ha sido abrir una lista de interesados para que puedan acceder a esas viviendas de segunda transmisión y lo que hace el Ayuntamiento es adaptar esa compraventa. Las listas suelen ser abiertas, debe hacerse la inscripción para poder estar en esas listas y la vigencia de esas listas es de dos años. Hay que cumplir con dos requisitos principales: declarar que se cumplen las condiciones generales para acceder a la vivienda, y que además de esas condiciones generales, también se cumplen las condiciones impuestas por el Ayuntamiento. El

ezarritako baldintzak bete behar dira, eta etxebizitzen banaketa logela kopuruaren arabera egingo da. Hiru talde osatuko dira (etxebizitza hiru logelakoa, bi logelakoa edo logela bakarrekoa den), eta talde bakoitzak dagokion zozketan hartuko du parte.

requisito principal es el estar empadronado 10 años, y la lista es para dos años; una vez transcurrido ese periodo, el que quiera mantenerse en la lista debe incribirse de nuevo. Deben cumplirse las condiciones económicas y las impuestas por el Ayuntamiento, y la distribución de las viviendas se realizará según el número de habitaciones. Se conformarán tres grupos (según la vivienda sea de tres, dos o una habitación) y cada grupo participará en su sorteo correspondiente.

Ortiz jaunak hartu du hitza, eta esan du *"Ez badago etxebizitzen neurrietarako egokia den zozketatu beharreko bizikidetza unitaterik, zozketan gainerako bizikidetza unitateak sartuko dira"* dioen tokian, beste hau esan beharko lukeela: *Ez badago etxebizitzen neurrietarako egokia den zozketatu beharreko bizikidetza unitaterik, zozketan hurrengo bizikidetza unitatea sartuko da"*. Bestela, edozein eskaeragilek eskatu ahal izango luke logela bakarreko etxebizitza.

Toma la palabra el Sr Ortiz, diciendo que en el apartado donde dice que *"si no existieran unidades convivenciales a sortear adecuadas a la dimensión de las viviendas, se procederá a incorporar al sorteo al resto de las unidades convivenciales"*, debería decir *"si no existieran unidades convivenciales a sortear adecuadas a la dimensión de las viviendas, se procederá a incorporar al sorteo al siguiente tipo de unidad convivencial"*. Si no, cualquier solicitante podría optar a vivienda de una habitación.

Alkate jaunak hartu du hitza, eta esan du lehentasuna hiru logelako eskaeragileentzat dela, horren ondotik bikoen eskaeragileentzat, eta horren ondotik batekoa eskatzen dutenentzat.

El Sr. Alcalde toma la palabra diciendo que la prioridad es para los solicitantes de tres habitaciones, si no, dos, si no, uno.

Ortiz jaunak galdetu du ea zerrenda Eusko Jaurkaritzak kudeatuko duen; ea Udalak aztertuko duen baldintza ekonomikoak betetzen diren.

El Sr. Ortiz pregunta si la lista la gestionará el Gobierno Vasco; si el cumplimiento de las condiciones económicas las examinará el Ayuintamiento.

Alkate jaunak erantzun dio Eusko Jaurkaritzak izango duela horren ardura; Eusko Jaurlaritzak ematen duela oniritzia, eta hori gabe inork ezin duela bere etxea saldu. Udalaren lana saltzailea eta eroslea harremanetan jartzea da; Udalak adieraziko dio jabeari nori saldu behar dion etxebizitza. Gainera esan du etxebizitza bakoitzerako dagokion zozketa egingo dela.

El Sr. Alcalde le responde que será el Gobierno Vasco el encargado de ello; que el Gobierno Vasco concede el visado y que sin ello nadie puede vender su vivienda. El papel del Ayuntamiento es el de poner en contacto al vendedor con el comprador; el Ayuntamiento se encargará de indicarle al propietario a quién debe venderle la vivienda. También aclara que por cada vivienda se efectuará el sorteo correspondiente.

Bestetik, Alkate jaunak proposatu du ken dadila paragrafo bat, hain zuen ere bi urte igarota Udalak izango duela interesatuari berriz izena eman dezan ohartarazteko ardura dioena. Esan du ardura interesatuarena izan beharko litzatekeela, eta ez Udalarena.

Por otro lado, el Sr. Alcalde propone suprimir el párrafo donde dice que una vez transcurridos los dos años, el Ayuntamiento será el encargado de avisar al interesado para que proceda a inscribirse de nuevo en la lista. Dice que esa responsabilidad debería ser del interesado, no del Ayuntamiento.

Alvarez jaunak hartu du hitza, eta esan du bere ustez gaia Osoko Bilkurara aurretik ondo aztertu gabe ekarri dela. Proposatu du zozketatu beharreko etxeetatik bi edo hiru Udalaren esku geratzea, gizarte larrialdietako kasuei aurre egiteko. Gainera proposatu du zerrenda bat egin dadila alokairuko etxebizitzekin, eta esan du bere taldea abstenitu egingo dela.

El Sr. Alvarez toma la palabra diciendo que le parece que el tema se ha traido a Pleno sin haberlo examinado antes detenidamente. Propone que de las casas que se vayan a sortear, dos o tres se la quede al Ayuntamiento para afrontar casos de emergencia social. Propone también hacer una lista con viviendas de alquiler y añade que su grupo se va a abstener.

Elizalde jaunak hartu du hitza, eta esan du duela bi urte gaiak eztabaidatu eta adosteko Hondarribia Lantzeneko batzorde bat eratzea eskatu zutela, eta batzordea sortua balego berezko araudia izango zuela. Une honetan ez da batzorderik sortu, gaia Osoko Bilkurara korrika eta presaka ekarri da, eta Udalak Eusko Jaurlaritzako araudia bereganatu egin behar izan du.

Toma la palabra el Sr. Elizalde diciendo que hace año y medio solicitaron que se creará una comisión de Hondarribia Lantzen para debatir y decidir temas, y que si la comisión estuviera creada, se hubiera tenido una normativa propia. Ahora estamos en el punto de que ni se creado ninguna comisión, se ha traido el tema a Pleno corriendo y deprisa, el Ayuntamiento ha tenido que hacer suya propia la normativa del Gobierno Vasco.

Labaien jaunak esan du gaia ez dela behar bezala landu. Ez zutela beste munduko txostenik espero, baina bai etxebizitza kopuruari eta abarri buruzko informazio gehiago.

El Sr Labaien dice que el tema no ha sido madurado suficientemente. Que no esperaban un informe de otro mundo, pero sí más información sobre el número de viviendas y demás.

Proposamena bozkatu eta onartu da aldeko bederatzi botorekin, aurkakorik gabe eta zortzi abstentziorekin.

Sometida a votación la propuesta es aprobada por nueve votos a favor, ninguno en contra y ocho abstenciones.

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle eta José Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle y D. José Miguel Ochoteco Aguirre.

Abstenitu egi dira: Ibai Labaien Zapirain, Jon Mikel Garmendia Múgica, Juan Ortiz Armendariz, Catherine J.A. Noblia Richard, Marilena Castillo Gil, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Ramon Laborda Larzabal eta Ion Elizalde Caballero jaun-andreak.

Se han abstenido: D. Ibai Labaien Zapirain, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, D. Juan Ortiz Armendariz, Dª Catherine J.A. Noblia Richard, Dª Marilena Castillo Gil, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Ramon Laborda Larzabal y D. Ion Elizalde Caballero.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Testua honako zentzuan aldatzea:

**PRIMERO.-** Modificar el texto de la siguiente manera:

a) “Erregistroan izen ematea” dagokion izenburuan, 2. ataleko azken paragrafoan, *“Gainera, udal erregistroan izena eman nahi duten eskaeragileek zuritu beharko dute bizikidetza unitateko gutxienez kide batek 15 urte edo gehiago daramatzala Hondarribian erroldatua, Erregistroan eskaera aurkezten duen unetik zenbatzen hasita”* dioen lekuan, *“Gainera, udal erregistroan izena eman nahi duten eskaeragileek zuritu beharko dute bizikidetza unitateko gutxienez kide batek 10 urte edo gehiago daramatzala Hondarribian erroldatua, Erregistroan eskaera aurkezten duen unetik zenbatzen hasita”*

a) En el título “Inscripción en el Registro”, último párrafo del 2º apartado, donde dice *“Además, los solicitantes de inscripción en el Registro municipal deberán justificar el empadronamiento en el municipio de Hondarribia durante un periodo de al menos 15 años a contar desde la fecha de presentación de la solicitud de inscripción en el Registro de al menos uno de los integrantes de la unidad convivencial”* deberá decir *“Además, los solicitantes de inscripción en el Registro municipal deberán justificar el empadronamiento en el municipio de Hondarribia durante un periodo de al menos 10 años a contar desde la fecha de presentación de la solicitud de inscripción en el Registro de al menos uno de los integrantes de la unidad convivencial”.*

b) “Izen ematearen aldaketa”ko 4. ataleko azken paragrafoa ezabatzea, honako edukikoa: *“Hondarribiko Udalak pertsona edo bizikidetza unitateei amaitu aurretik nahiko denborarekin jakinaraziko die noiz bukatzen den izen ematearen indarraldia, berritu ahal izateko”.*

b) Suprimir el parrafo correspondiente a la “Inscripción en el registro”, apartado 4º, último párrafo del siguiente tenor: *“El Ayuntamiento de Hondarribia informará a las personas o unidades convivenciales de la fecha de finalización del plazo de inscripción con la antelación suficiente para permitir su renovación”.*

c) “Bigarren eskualdaketako etxebizitza esleitzeko prozedura” ataleko 3. atalean, bigarren paragrafoan, *“Ez badago etxebizitzen neurrietarako egokia den zozketatu beharreko bizikidetza unitaterik, zozketan gainerako bizikidetza unitateak sartuko dira(…)”* dioen lekuan, *“Ez badago etxebizitzen neurrietarako egokia den zozketatu beharreko bizikidetza unitaterik, zozketan hurrengo bizikidetza unitate mota sartuko da(…)”* agertu beharko du.

c) En el título “Procedimiento de adjudicación de las viviendas de segunda transmisión”, apartado 3º, segundo párrafo, donde dice *“Si no existieran unidades convivenciales a sortear adecuadas a la dimensión de las viviendas, se procederá a incorporar al sorteo al resto de unidades convivenciales(…)”* deberá decir *“Si no existieran unidades convivenciales a sortear adecuadas a la dimensión de las viviendas, se procederá a incorporar al sorteo al siguiente tipo de unidad convivencial(…)”.*

**BIGARREN.-** Bigarren eskualdaketako etxebizitza publikoak eskuratzeko eskaeragile erregistroa sortzeko Hondarribiko Udalerako oinarriak aurrez aipatutako aldaketekin onartzea.

**SEGUNDO.-** Aprobar las bases para la creación de un registro de solicitantes de vivienda pública de segunda transmisión del Ayuntamiento de Hondarribia, una vez realizadas las modificaciones anteriormente citadas.

**HIRUGARREN.-** Aipatutako oinarriak hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean arrgitaratuz, baita Udal Oholtzan ere

**TERCERO.-** Someter las bases citadas a información pública por plazo de treinta días hábiles, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el Tablón de Anuncios Municipal.

**LAUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

**CUARTO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**MOZIOAK**

**MOCIONES**

**10.-BILDU UDAL TALDEAK ONKOLOGIKOARI BURUZ AURKEZTURIKO MOZIOA**

Bildu udal taldeak aurkezturiko Onkologikoari buruzko mozioa azterturik, 2013ko maiatzaren 6ko 3016 SE zkikoa, honako edukia duena:

*"Onkologikoa kolokan dago bere etorkizuna zalantzan jartzen duten erabakiak hartzen direlako, onkologikoan urteak lanean daramatzaten profesionalek eta langileek salatu duten moduan. Onkologikoak gipuzkoarrei orain arte eman dien zerbitzua jarraitzea nahi badugu, kezka hauei kasu egin behar diegu. Honengatik guztiagatik Hondarribiko Udalak Onkologikoaren defentsa irmoa egin behar du. Horretarako Onkologikoa Osasun Zerbitzu Publikoa den Osakidetzan sartzea eskatu behar da, jendarte guztiaren esku dagoen zerbitzua ziurtatzeko dagoen bide bakarra baita.*

*Onkologikoaren biziraupena eta zerbitzua bermatzea Hondarribiko Udalaren ardura ere badelako; Onkologikoaren jarduera nagusiak osasungintza publikoa izan behar duelako; herrialdeko gaixotasun onkologikoak artatzeko zerbitzu espezializatu gisa erreferente izaten jarraitu behar duelako eta jendarte guztiaren zerbitzura egon behar duelako, honako mozio hau aurkezten dugu Hondarribiko Udalak aztertu eta onartu dezan:*

*1.-Hondarribiko Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzetan egin duten lanagatik. Lan honek Onkologikoa mantendu, zaindu eta babestu beharreko erreferentean bilakatu du, beti ere jendarte guztiari zuzendutako zerbitzu bezala.*

**10.-MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL BILDU EN RELACIÓN AL ONCOLÓGICO**

Examinada la moción presentada por el grupo municipal Bildu en relación al Oncológico, RE nº 3016 de 6 de mayo de 2013, cuyo tenor literal es el siguiente:

*"El futuro de Onkologikoa está en juego porque se están tomando una serie de decisiones que están siendo cuestionadas hasta por las y los profesionales y trabajadores que llevan años desempeñando allí su labor. El hecho de que sean ellos y ellas las que han levantado la voz de alarma es muy significativo y debemos hacerles caso si queremos que el servicio que Onkologikoa ha prestado hasta la fecha se pueda seguir garantizando para el conjunto de la sociedad. En estas circunstancias, este Ayuntamiento tiene la obligación de salir en defensa de Onkologikoa. Para garantizar su futuro el único camino es su integración en el Sistema Público de Salud, Osakidetza, al que toda la ciudadanía tiene acceso.*

*Por todo ello, entendemos que este Ayuntamiento no puede quedarse al margen de lo que pueda ocurrir con Onkologikoa. Desde el convencimiento de que la actividad principal de este Centro debe continuar siendo la medicina pública y de que debemos defender el futuro de Onkologikoa como el mejor referente de la atención especializada en enfermedades oncológicas de nuestro territorio y para que se mantenga abierto al conjunto de la ciudadanía, presentamos la siguiente Declaración:*

*1.-El Ayuntamiento en Pleno de Hondarribia quiere reiterar el reconocimiento a Onkologikoa, así como al conjunto de la plantilla, por su trabajo durante tantos años en este campo, ya que dicho trabajo ha convertido a Onkologikoa en un referente que debemos de mantener, cuidar y preservar para que*

*siga prestando su servicio al conjunto de la ciudadanía desde el sistema público de asistencia sanitaria.*

2.-*Hondarribiko Udalak Onkologikoa, Osakidetzan, Osasun Publikoaren Sisteman, sartzeko nahia adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutxako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira.*

*2.-El Ayuntamiento Pleno de Hondarribia expresa su deseo de que Onkologikoa sea integrado en el Sistema Publico de Salud, Osakidetza, insta al Gobierno Vasco a llegar a un acuerdo con la Dirección de Kutxa y su Obra Social para iniciar un proceso de conversaciones donde se acuerden los pasos a dar para hacerlo efectivo. Ambas partes deberán planificar los plazos y los pasos a dar para hacer esto realidad integrando la cultura de ambas organizaciones.*

*3.-Hondarribiko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Kutxako eta Kutxabank-eko zuzendariei eskatzen die, adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsizioko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duen diru-hornidura. Hornidura honek, gutxienean, orain arteko kopuru berekoa izan behar du.*

*3.-El Ayuntamiento Pleno de Hondarribia insta al Gobierno Vasco y a la Dirección de Kutxa y Kutxabank a que acuerden durante este periodo transitorio, cuya duración será convenida, la aportación de la cuantía necesaría para el mantenimiento de Onkologikoa, que será de al menos la misma cuantía que la que venía dotando para su sostenimiento.*

*4.-Hondarribiko Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakiak jakinarazi behar die:*

**Kutxako Batzarrari eta bere Gizarte Ekintza Batzordeari*
**Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari*
**Osakidetzako Zuzendariari.*
**Hondarribiko herritarrei".*

*4.-El Ayuntamiento Pleno de Hondarribia dará a conocer este acuerdo a las siguientes instancias:*

**A la Asamblea de Kutxa y a su Comisión de Obra Social*
**Al Consejero/a de Sanidad del Gobierno Vasco*
**Al Director/a de Osakidetza*
**A los y las vecinas de Hondarribia"*

Ochoteco jaunak hartu du hitza, eta esan du ez dela egia Kutxak Onkologikoa pribatizatu nahi duenik, eta arazoa zera dela, %80 Gizarte Segurantzarekiko Lankidetza Hitzarmenari esker mantentzen dela. Hori dela-eta, dei egiten dio Kontseilariaren zentzutasunari, hitzarmena berritu dezan eta Onkologikoak jarrai dezan orain arte egiten zuen lan garrantzitsua egiten.

Interviene el Sr. Ochoteco diciendo que no es cierto que la Kutxa quiera privatizar el Oncológico y que el problema es que el 80% es mantenido gracias al Convenio de Colaboración con la Seguridad Social. Por ello, apela a la sensatez del Consejero y solicita que se renueve el citado convenio para que el Oncológico siga cumpliendo esa función tan importante que desempeña.

Ortiz jaunak erantzun dio Onkologokian gertatzen ari diren kaleratzeak ez direla aspaldikoak, Ochoteco jaunak esan duen bezala, eta ez dela egia Osasungintza Publikoan gaixoei minbizi egoeretan hitzordua emateko hilabeteak pasa behar direnik.

El Sr. Ortiz le responde diciendo que el tema de los despidos en el Oncológico no es de mucho tiempo atrás, tal y como ha manifestado el Sr. Ochoteco, y que tampoco es cierto que en la Sanidad Pública a los enfermos de cáncer se les dé cita a los meses.

Ochoteco jaunak erantzun dio bera orain dela hiru urteko kaleratze kasuez ari dela, eta berak ez duela Osasungintza Publikoan jendeari arreta txarra ematen zaionik esan. Are gehiago, bere ustez osasungintza Publikoa eredugarria izan dela Onkologikoaren kasuan.

El Sr. Ochoteco responde que él está hablando de casos de despidos de hace tres años y que él no dice que en la Sanidad Pública se atienda mal a la gente. Que es más, él cree que la Sanidad Pública ha sido modélica con el tema del Oncológico.

Mozioa bozkatu eta ezetsi egin da aldeko zortzi botorekin eta aurkako beredatzirekin.

Sometida a votación la moción, es desestimada por ocho votos a favor y nueve en contra.

Alde bozkatu dute: Ibai Labaien Zapirain, Jon Mikel Garmendia Múgica, Juan Ortiz Armendariz, Catherine J.A. Noblia Richard, Marilena Castillo Gil, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Ramon Laborda Larzabal eta Ion Elizalde Caballero jaun-andreek.

Votan a favor: D. Ibai Labaien Zapirain, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, D. Juan Ortiz Armendariz, Dª Catherine J.A. Noblia Richard, Dª Marilena Castillo Gil, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Ramon Laborda Larzabal y D. Ion Elizalde Caballero.

Aurka bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle eta José Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Votan en contra: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle y D. José Miguel Ochoteco Aguirre.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz **ERABAKI DU** Bildu udal taldeak Onkologikoari buruzko aurkezturiko mozioa ezestea.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría, **ACUERDA** desestimar la moción presentada por el grupo municipal Bildu en relación al Oncológico.

EAJ-PNV taldeak Bilduk aukezturiko mozioari erantzunez aurkezturiko mozioa azterturik, honako edukia izanik:

Examinada la moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV en respuesta a la moción presentada por Bildu, cuyo tenor literal es el siguiente:

*"Onkologikoa Kutxaren Erakunde Onkologikoa da. Minbizia prebenitu, diagnostikatu eta sendatzeko zentro monografikoa da, teknologia aurreratuena erabiltzen du, eta egunero hirurehun profesional baino gehiago biltzen ditu.*

*"Onkologikoa, es el Instituto Oncológico de Kutxa. Se trata de un centro monográfico para la prevención, el diagnóstico y el tratamiento del cáncer, un centro puntero en cuanto a tecnología, que reúne en su actividad diaria a más de trescientos profesionales.*

*Onkologikoa EUSKAL OSASUN SISTEMAN integratua da aspaldidanik, izan ere orain dela 25 urte INSALUDeko transferentziak jaso zirenetik gaur egun arte, Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuarekin sinatutako hitzarmenen bidez, Gipuzkoa nahiz Euskal Autonomi Erkidegoko gainerako pazienteei osasun arreta eskaintzen die.*

*El Oncológico se halla integrado en el SISTEMA VASCO DE SALUD desde hace mucho tiempo, y es que desde que ahora hace 25 años se recibieran las transferencias del INSALUD y hasta la fecha, a través del convenios suscritos con el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, ha asumido y asume todavía hoy en día la atención sanitaria oncológica*

*Horiez gain aseguru pribatuetako pazienteek eta paziente partikularrek ere jasotzen dute tratamendua.*

*tanto de pacientes de Gipuzkoa como del resto de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Además, también reciben tratamiento en el Oncológico pacientes de las Aseguradoras privadas y pacientes particulares.*

*Azaldu dudan bezala, ONKOLOGIKOAren jabea Kutxa da, eta horixe da bere gizarte ekintzako adierazgarri nagusietako bat. Ondorioz, inor ez dadila nahastu: nahiz eta Euskal Osasun Sisteman txertatua dagoen, Onkologikoa beti ospitale pribatua izan da, sortu zenetik.*

*Tal y como se ha indicado, el propietario de ONKOLOGIKOA es Kutxa, siendo este centro una de los símbolos principales de toda su obra social. Por lo tanto, que nadie se llame a engaño, aun cuando se ubique en el entramado del Sistema Vasco de Salud, el Oncológico ha sido siempre un hospital privado, desde su fundación.*

*2010 urtean KUTXAk ordu arte Ospitale Onkologikoa izan zena fundazio bihurtu zuen; irabazi asmorik gabeko fundazioa, bere jarduera interes publikoko ekimenetara mugatzen zuena.*

*El año 2010, KUTXA convirtió lo que hasta la fecha había sido el Hospital Oncológico en una fundación; una fundación sin ánimo de lucro y que limitaba su actividad al ámbito de las iniciativas de interés público.*

*Fundazio bihurtzearekin batera berezko izate juridikoa eman zitzaion, eta zuzendaritza patronatu baten esku geratu zen. Patronatu horretako burua Kutxako burua da, eta otsailaren 13tik Osasun Sailburuordea ere patronatuko kidea da.*

*Junto a su conversión a fundación se le dio entidad jurídica propia, dejando su dirección en manos de un patronato. El presidente de dicho patronato lo es el de la Kutxa y a partir del 13 de febrero el Viceconsejero de Salud también es miembro del mismo.*

*Erabat ados gaude ONKOLOGIKOAk berebiziko garrantzia duela Euskal Osasun Sisteman. Izen handiko zentroa da Gipuzkoan nahiz Euskal Herri osoan, eta gizarte lan handia egiten du.*

*Coincidimos plenamente con la apreciación de que el ONCOLÓGICO es de suma importancia para el Sistema Vasco de Salud. Es un centro de gran prestigio tanto a nivel de Gipuzkoa como de todo el País Vasco y cumple con una función social innegable.*

*Eta guk hala izaten jarraitzea nahi dugu.*

*Y nosotros deseamos que siga así.*

*Hori dela-eta, Osasun Sailburuak gai honen inguruan hartutako konpromisoa beteko du. Argi adierazi du Eusko Jaurlaritzak arduraz jokatuko duela eta ez duela ONKOLOGIKOA bertan behera utziko. Kontrakoa, adierazi du aurtengo abenduaren 31n amaitzen den HITZARMENA berritzeko asmo garbia duela, hain zuzen ere ONKOLOGIKOARI egonkortasuna ematek*

*Por ello, el Consejero de Salud cumplirá con el compromiso adquirido en torno a este tema. Ha manifestado con claridad que el Gobierno Vasco actuará con responsabilidad y no dejará en la estacada al ONCOLÓGICO. Muy al contrario, ha manifestado su propósito firme de renovar el CONVENIO que concluye el 31 de Diciembre del corriente, precisamente con el objetivo de dar estabilidad al ONCOLÓGICO.*

*Gobernuak jarraituko du aurrerapausoak ematen ONKOLOGIKOAREN eta Donostiako Ospitale Unibertsitarioaren arteko "integrazio funtzionala"*

*El Gobierno continuará dando pasos en la vía de la "integración funcional" entre el ONCOLÓGICO y el Hospital Universitario de*

*lortze aldera.*

*Izan ere, gure ustez beharrezkoa da Gipuzkoako eta Autonomi Erkidegoko arreta onkologikoa bere osotasunean aztertzea, horren arabera jokatzeko eta bi erakundeen integrazio funtzionala lortzen joateko.*

*Hori dela eta:*

*1.- Gure esker ona azaltzen diogu Onkologikoak egiten duen lanari, eta bertako langileen lana eta Kutxak gizarte ekintzaren bidez egindako apustua goresten dugu.*

*2.- Berretsi nahi dugu Gobernuak Onkologikoarekin azken hogei urte hauetan egindako ituna, lehen mailako zentro hori etorkizunean ere Euskal Osasun Sistemaren osagarri izaten jarraitzeko, gipuzkoar eta Euskal Autonomia Erkidego osoko biztanleei arreta onkologikoa eskainiz.*

*3.- Zenbait patologia onkologikori dagokionez erreferentea Onkologikoa da; beste batzuei dagokienez, erreferentea Donostiako Ospitale Unibertsitarioa da. Gure ustez beharrezkoa da bi zentroen integrazio funtzionalean sakontzea, bien arteko lehia txikiagoa izateko eta lankidetza maila handiagoa izateko*"

*Donosita.*

*Porque consideramos que es necesario examinar en su integridad la atención oncológica a nivel de Gipuzkoa y de la Comunidad Autónoma para, consecuentemente, ir progresando en la consecución de la integración funcional de ambas instituciones.*

*Por todo ello:*

*1.- Mostramos nuestro reconocimiento a la función que desempeña el Oncológico, a la vez que agradecemos y constatamos el trabajo realizado por los trabajadores del mismo y la apuesta realizada por Kutxa en el mismo sentido a través de su obra social.*

*2.- Confirmamos la necesidad de renovar el concierto que ha mantenido durante los últimos veinte años el Gobierno con el Oncológico, para que este centro de primer orden siga formando parte en el futuro del Sistema Vasco de Salud, ofreciendo a todos los gipuzkoanos, además de al conjunto de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma la atención oncológica pertinente a través del sistema vasco de salud.*

*3.- Con relación a algunas patologías oncológicas el referente es Onkologikoa; con relación a otras lo es el Hospital Universitario de Donostia. Creemos necesario profundizar en la integración funcional de ambos centros, para que sea menor la competencia entre ambos y mayor el grado de colaboración"*

Mozioa bozkatu eta onartu egin da aldeko bederatzi botorekin eta aurkako zortzirekin.

Alde bozkatu dute: Aitor Kerejeta Cid, Juan María Altuna Muñoa, Txomin Sagarzazu Ancisar, Lupe Olaskoaga Susperregi, Amaya Gezala Ortiz, Maite Pelaez Arregi, Juan Luis Silanes Agirre, Katrin Martínez De la Valle eta José Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Sometida a votación la moción, es aprobada por nueve votos a favor y ocho en contra.

Votan a favor: D. Aitor Kerejeta Cid, D. Juan María Altuna Muñoa, D. Txomin Sagarzazu Ancisar, Dª Lupe Olaskoaga Susperregi, Dª Amaya Gezala Ortiz, Dª Maite Pelaez Arregi, D. Juan Luis Silanes Agirre, Dª Katrin Martínez De la Valle y D. José Miguel Ochoteco Aguirre.

Aurka bozkatu dute: Ibai Labaien Zapirain, Jon Mikel Garmendia Múgica, Juan Ortiz Armendariz, Catherine J.A. Noblia Richard, Marilena Castillo Gil, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, Ramon Laborda Larzabal eta Ion Elizalde Caballero jaun-andreek.

Votan en contra: D. Ibai Labaien Zapirain, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, D. Juan Ortiz Armendariz, Dª Catherine J.A. Noblia Richard, Dª Marilena Castillo Gil, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui, D. Ramon Laborda Larzabal y D. Ion Elizalde Caballero.

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz **ERABAKI DU** EAJ-PNV udal taldeak Onkologikoari buruzko aurkezturiko mozioa onartzea.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por mayoría, **ACUERDA** aprobar la moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV en relación al Oncológico.

**11.- HONDARRIBIKO STOP KALERATZEAK TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOA**

**11.-MOCIÓN PRESENTADA POR STOP DESAHUCIOS HONDARRIBIA**

Hondarribiko Stop Kaleratzeak taldeak 2013ko maiatzaren 10eko 3251 SE zki. duen aurkezturiko mozioaren berri eman da, mozioak hitzez hitz honela dioelarik:

Dada cuenta de la moción presentada por el colectivo Stop Desahucios Hondarribia, RE nº 3251 de 10 de mayo de 2013, y cuyo tenor literal es el siguiente:

*"Joan den 2012ko apirilaren 28an 2899/2011 Ministerio Agindua indarrean sartu zen; agindu horretako 27. artikulua banketxe zerbitzuetako bezeroen gardentasun eta babesari buruzkoa da, eta bertan jasoak daude datozen urteetarako hipoteka maileguen interesak ezartzeko indize ofizialak.*
*Artikulu horretan topatzen ditugu aurretik erabiltzen ziren zenbait indize, eta sortu berriak diren beste batzuk, eta ikusi dugu aurreko urteetan garrantzi handia izan duten zenbait indize desagertu egin direla, adibidez IRPH Kutxak, IRPH banketxeak eta CECA kasuetan.*

*"El pasado 28 de abril de 2012 entró en vigor la Orden Ministerial 2899/2011 de transparencia y protección de los clientes de servicios bancarios, que en su artículo 27 recoge los nuevos índices oficiales para la determinación de los intereses de los préstamos hipotecarios de los próximos años.*
*En el citado artículo encontramos algunos índices que ya venían siendo utilizados, otros de nueva creación, y observamos la desaparición de índices que han tenido una gran relevancia en los últimos años, caso del IRPH Cajas, IRPH Bancos, y CECA.*

*Baina Ministerio Agindu horretako Xedapen Iragankorrak zera du ezarria, 27. artikulu horretan ageri ez diren indizeak behin betiko desagertuko direla argitaratu eta handik urte betera, beti ere eragindako maileguetarako dagokion araubide iragankorra ezartzen bada.*

*Sin embargo, la Disposición Transitoria de la citada Orden Ministerial establece que la desaparición definitiva de los índices que ya no aparecen recogidos en el mencionado artículo 27 se producirá transcurrido un año desde su publicación, siempre y cuando se establezca el correspondiente régimen transitorio para los préstamos afectados.*

*Horrek esan nahi du desagertze hori gauzatzeko beharrezkoa dela Gobernuak Dekretu bat edo Ministerio Agindu bat argitaratzea, eta bertan ezartzea zein interes mota aplikatu behar zaien indizea desagertuko den hipoteka maileguei, haien*

*Quiere ello decir que para que la desaparición de los índices llamados a desaparecer sea una realidad es necesario que desde el Gobierno se publique bien un Decreto o bien otra Orden Ministerial en donde se fije el tipo de interés que*

*klausuletan beste aukeraren bat agertzen ez den kasuetan.*

*deberá aplicarse en aquellos préstamos hipotecarios cuyo índice desaparece y no tienen contemplada una alternativa en su clausulado.*

*Kutxak emandako Hipoteka Maileguetako askok IRPH Kutxak dute erreferentzia, eta desagertuz gero beste aukera hau dute aurreikusia: Euriborra + %1; aukera hori arinaldi handia da milaka familiaren ekonomiarentzat, izan ere mailegu ertain batean hileko 300 eurotik 400 eurora bitarteko aurrezpena da.*

*Una importante cantidad de los préstamos hipotecarios concedidos por Kutxa vienen referenciados al IRPH Cajas, y contemplan como índice alternativo en caso de desaparición el Euribor más 1%, una alternativa que significa un importante alivio para la economía de miles de familias ya que representa un ahorro del orden de 300 a 400 euros mensuales en un préstamo medio.*

*Baina Gobernuak ez du beharrezko araubide iragankorra ezarri, eta horrek esan nahi du "IRPH Kutxak" delakoa luzatu egingo dela auskalo noiz arte (orain esan digutenez gutxienez urriaren 6a bitarte), eta hori kalte handia izango da familientzat eta onura erakundeentzat.*

*Sin embargo, desde el Gobierno no se ha establecido el necesario régimen transitorio, lo que significa que el IRPH Cajas se prolongará indefinidamente (ahora nos dicen que por lo menos hasta el 6 de octubre) con el consiguiente perjuicio para las familias y beneficio para las entidades*

*Gobernuak araubide iragankorra ezarri ez badu, ez da ahaztu zaiolako, erabaki baten ondorioa da, hausnartutako erabakiarena, interesak neurtu ondoren. Eta hala, erakundeentzat onuragarria den egoera mantentzea erabaki dute, familien kaltetan.*

*Que el Gobierno no haya establecido el régimen transitorio no es un olvido, es una decisión derivada de una relfexión y una ponderación de intereses. Y así, han optado por mantener una situación beneficiosa para las entidades y muy lesiva para las familias.*

*Hori dela-eta, Hondarribiko Stop Kaleratzeak plataformatik eskatzen dugu Osoko Bilkuran eztabaida dadila Ekonomia Ministeriora gutun bat bidaltzearen komenigarritasuna, eta gutunean eska dadila lehenbailehen ezar dezatela araubide iragankor hori, IRPH Kutxa desagertzeko, kontuan izanik, gainera, orain soldata murrizketek desoreka handiagoa sortuko dutela familien ekonomien diru-sarrera eta gastuen artean.*

*Por ello, desde Stop Desahucios de Hondarribia solicitamos debatan en el Pleno la conveniencia de enviar una carta al Ministerio de Economía lamentando su interesada desidia y le urjan a establecer lo antes posible el régimen transitorio que permita que la desaparición del IRPH Cajas sea una realidad, y más en un momento en el que los futuros recortes salariales van a propiciar un todavía mayor desequilibrio entre los ingresos y los gastos de las economías familiares.*

*Gainera proposatzen dugu Kutxabankera idatzi bat bidal dezazuela eta bertan eskatzea berehala aldaketa egin dezatela, hau da "IRPH Kutxak" beharrean hipoteka maileguek kasu bakoitzean aurreikusten duten indize jartzea, itxaron gabe araubide iragankorra ezarri arte, kontuan izanik horren edukiak ez duela garrantzirik, beste erakundeetako maileguetara zuzenduta baitago".*

*Igualmente, proponemos el envío de un escrito a Kutxabank solicitando la inmediata sustitución del IRPH Cajas por el índice que en cada caso contemple el clausulado de los préstamos hipotecarios sin esperar al establecimiento de un régimen transitorio cuyo contenido le resulta irrelevante por estar destinado a los préstamos de otras entidades".*

Udalbatzako kideen adostasunarekin, Alkate jaunak hitza eman dio Hondarribiko STOP KALERATZEAK taldeko ordezkaria den Jose Mª Erauskin Vazquez jaunari.

Con la conformidad de los miembros de la Corporación, el Sr. Alcalde concede la palabra al representante de STOP DESAHUCIOS de HONDARRIBIA, Sr. Jose Mª Erauskin Vazquez.

Hitza hartu du, eta bere mozioa aurkeztu du, hain zuzen ere Ezker Batuak Diputatuen Kongresuan eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztutakoa, Gipuzkoako ia Udal guztietan aurkeztutakoa, eta aldi berean Kataluniako Biltzarrean katalaneraz aurkeztu dena.

Toma la palabra haciendo una presentación de la moción que se ha presentado en casi todos los Ayuntamientos de Gipuzkoa, así como en el Parlamento Vasco, y en el Congreso de los Diputados por parte de Izquierda Unida, así como, traducida al catalán, en el Parlamento Catalán.

Esan du horrekin zera esan nahi duela, ez dela Hondarribikoa bakarrik den gaia, garrantzi handiko gaia dela, pertsona askori eragiten baitie.

Añade que con ello lo que quiere decir es que se trata de un tema que no es propiamente de Hondarribia, sino que se trata de un tema que tiene relevancia porque afecta a muchas personas.

Ondoren Hondarribiko STOP KALERATZEAK taldea aurkeztu du, eta talde honek haien etxebizitzetatik kaleratu dituztenen edo horren arriskuan daudenen alde egiten duen lana azaldu du.

A continuación presenta al grupo de STOP DESAHUCIOS de Hondarribia así como la actividad que llevan a cabo a favor de quienes han sido desahuciados de sus viviendas o de quienes están en riesgo de serlo.

Ondoren kexa egin du, Udalak ez duelako egiten ari diren lana errespetatzen, eta ez duelako haien eskaera aintzat hartu, hau da, haiengana joaten den jendeari arreta emateko lokal bat jartzeari buruzkoa. Esan du hogei minutuz hitz egin nahi dutela, herri guztietan bezala, baina hori hemen ezinezkoa dela, bost minutu besterik ez zaiela ematen.

Seguidamente se queja de que por parte del Ayuntamiento no se les respeta la labor que están llevando a cabo y que no se les ha atendido en relación con la petición de un local para poder atender a la gente que acude a ellos. Añade que quieren hablar durante veinte minutos, como en todos los pueblos, pero aquí no es posible, que solo se les da cinco minutos.

Esan du osatu den batzordea ez zaiela eraginkorra iruditzen, izan ere badirudi beti Udala bortxatzen ari direla, gaiak lantzeko hitzordua izateko.

Añade que la comisión formada no les parece operativa, pues tienen la sensación de estar siempre forzando al Ayuntamiento para poder tener una cita en la que tratar los temas.

Esan du lehenengo kasua martxoaren 8an eraman zutela, eta ekainaren 19an ez dutela oraindik erantzuna jaso; errespetu falta iruditzen zaie.

Recuerda que el primer caso lo llevaron el 8 de marzo y a 19 de junio todavía no tienen contestación; le parece una falta de respeto.

Gogorarazi du Udalari maiatzaren 5ean proposamen bat eraman ziotela, eta ez dutela oraindik erantzunik jaso; hori dela-eta, orain arte bezala jarraituko dute lanean, eta haiei laguntzeko prest daudenak hartuko dituzte kontuan; eskatu dute lagundu nahi duten talde guztiak hurbil daitezela Stop Kaleratzeak plataformara informatzera, eztabaidatzera...eta haiek alderdiak duen egoitzara joango direla.

Recuerda que le dieron al Ayuntamiento una propuesta el 5 de mayo y siguen sin respuesta ; por ello, dice, van a trabajar como hasta ahora y van a contar con quien quiera echarles una mano; pide que cualquier partido que quiera colaborar acuda a Stop Desahucios, a informarse, debatir, etc y ellos irán a la sede del partido.

Bere ustez batzordea ez da eraginkorra, eta orain arte ez dute denbora galdu besterik egin.

Para él, la comisión no es operativa, cree que no han hecho mas que perder el tiempo.

Mozioari dagokionez, azaldu du haien helburua IRPH delakoa dela (Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea)

En cuanto a la moción, explica que su objeto es el IRPH (Indice de Referencia de Préstamos Hipotecarios)

Esan du mozioa sortu zela 2012ko apirilaren 28an 2899/2011 Ministerio Agindua sartu zelako indarrean, hau da, banketxeko bezeroen gardentasun eta babeserako agindua; agindu horretako 27 artikuluan jasota daude Legeak irauten duen bitartean izango diren interes ofizial motak. Aipatutako artikuluan, aurretik ez zeuden zenbait indize ageri dira.

Dice que el origen de la moción es que el 28 de abril de 2012 entró en vigor una orden ministerial 2899/2011 de transparencia y protección de los clientes bancarios, que en su artículo 27 recoge los tipos de interés oficiales que van a existir durante la pervivencia de la Ley. En ese artículo aparecen unos indices que no existían anteriormente.

EURIBORraren kasuan bezala, sortu berriak diren beste zenbait ageri dira, eta zenbait indize desagertu dira, batez ere Europak aurreko Gobernua horiek kentzera bortxatu zuelako, izaera komuna baitzuten.

Como el caso del EURIBOR por ejemplo, aparecen otros que son de nueva creación y han desaparecido algunos índices, fundamentalmente por presión desde Europa que ha exigido al anterior Gobierno que tenía que suprimirlos por su carácter mancomunado.

Desagertuko liratekeen indize horiek Kutxak, IRPH Bankuak eta CECA indizea izango lirateke. Indize horiek ofizialak izateari utzi diote 2012ko apiriletik, eta horrek esan nahi du ezin direla mailegu berrietan erabili, baina argi dagoenez, mantendu egiten direla lehendik zeuden maileguetan, normala den bezala.

Estos índices que desaparecían son el Cajas, el IRPH Bancos y el índice CECA. Estos índices han dejado de ser oficiales en abril de 2012, lo cual significa que no pueden ser utilizados en nuevos préstamos pero evidentemente se mantienen en los préstamos en los que ya estaban, lógicamente.

Esan du Ministerioko aginduak urte beteko epea eman duela erabat desager daitezen, baina Gobernuak, eta zehazki Ekonomia Ministerioak, baldintzatu egiten dituela, harik eta beste ministerio agindu edo xedapen batek finkatu arte zein interes ordainduko duten desagertutako indizeak izanik klausuletan baldintza zehatzen bat ez zuten maileguek.

Añade que la orden ministerial establece un plazo de un año en principio para su definitiva desaparición, pero que está condicionado por el Gobierno y concretamente desde el Ministerio de Economía a que otra orden ministerial u otra disposición parecida, fije qué interés van a pagar los préstamos que viniendo referidos a unos indices que desaparecen no concretan una alternativa en su clausulado.

Urte beteko epea zegoen, baina Gobernuak ez du epe horretan besterik eman; Gobernuak xedapen hori argitaratzen ez duen arte, indize zaharkitu horiei eusten jarraituko dute.

Había un año para que se hiciera pero el Gobierno no lo ha hecho en ese plazo; mientras el Gobierno no publique esa disposición estos índices obsoletos se siguen manteniendo.

Esan du indize horiei eustea kaltegarria dela, oso manipulagarriak baitira, izan ere IRPH Kutxak kalkulatzen da batezbestekoa eginez, kutxak etxebizitza anitzetarako 3 urtetik gorako hipoteka maileguengatik bezeroei kobratzen ari dena kontuan hartuta. Esan du hori oso aldakorra dela, izan ere kutxa bakoitzak nahi duen prezioa jartzen du:

Explica que el mantenimiento de dichos indices tiene la repercusión de que son unos índices manipulables, porque el IRPH Cajas se calcula a partir de la media de lo que las cajas están cobrando a sus clientes por préstamos hipotecarios a más de 3 años y vivienda múltiple. Dice que eso es caprichoso, porque cada caja pone el precio que

jartzen dituzten prezioek haien bezeroarengan dute eragina, baina horrez gain, kutxek kobratzen duten batezbestekoa igotzen dute, eta ondorioz, orain dela urte batzuetako maileguak dituzten beste bezeroek ikusten dute hilabetez hilabete ordaindu beharreko kopurua igotzen dela, kutxak kobratzen ari direnaren batezbestekoa ere igotzen delako.

